



GERNIKA-LUMOkO hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016

Emaitzen txostena

Andoain, 2017ko ekaina.

1.	Sarrera	2
2.	Metodologia	3
2.1	Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren metodologia	3
2.2	"Gernika-Lumo, 2016" neurketaren fitxa teknikoa	8
2.3	Laginareen osaera	16
3.	Erabilera Gernika-Lumon, 2016. urtean: emaitza orokorra	19
3.1	Hamar elkarrizketatik bost euskaraz, Gernika-Lumon.....	19
3.2	Testu-inguratzeko bi datu garrantzitsu: herritarren hizkuntza-gaitasuna eta hortik espero daitekeen erabilera-maila	21
3.3	Euskararen erabilera Gernika-Lumon, hizkuntza-gaitasuna eta erabilera isotropikoa aintzat hartuta.....	24
4.	Erabileraren bilakaera Gernika-Lumon (2001-2016)	26
4.1	Euskararen erabilerak bi puntu eta erdi jaitsi da azken bost urtean	26
4.2	Ezagutzaren bilakaera.....	27
5.	Euskal Herriko, EAEko eta beste herrietako datuekin alderaketa.....	29
5.1	Euskal Herriko, EAEko, Bizkaiko eta inguruko herrien kale-erabileraren datuekiko alderaketa	29
5.2	Hizkuntza-gaitasuna, kaleko erabilera eta espero daitekeen erabilera, Euskal Herriko, EAEko, Bizkaiko eta Gernika-Lumoko datuekiko alderaketa	30
5.3	Beste zenbait herrirekiko alderaketa	31
6.	Zonaldekako emaitzak	33
6.1	Ibilbide guztien arteko alderaketa.....	33
6.2	Zonalde orokorren arabera emaitzen bilakaera.....	35
6.3	Ikastetxeen zonaldeetako emaitzen bilakaera.....	36
7.	Hiztunen ezaugarrien arabera datuak	38
7.1	Sexuaren arabera emaitzak	38
7.2	Sexuaren arabera erabileraren bilakaera	39
7.3	Adinaren arabera emaitzak	40
7.4	Adinaren arabera gaitasuna eta erabileraren arteko alderaketa.....	41
7.5	Adinaren arabera erabileraren bilakaera	43
8.	Euskararen erabilera eta haurren presentzia	47
8.1	Haurren presentziaren arabera euskararen erabilera.....	47
9.	Datu nagusien irakurketa (laburpena)	50



1. Sarrera

Euskararen egoera nolakoa den deskribatzeko garaian, askotan jotzen da iritzia ematera. Baina subjektibotasuna saihesteko, gero eta garrantzitsuagoa da egoeraren berri emango duten datuak eskuartean izatea, balorazioetan objektibotasuna lortzeko. Hala, datu horien bila ekin nahian, herriko euskararen presentzia nolakoa den adierazteko, funtsezkoa da kalean zenbat euskara erabiltzen den jakitea. Izan ere, soziolinguistika-arloko eskarmentuak erakutsi du erabilera dela hizkuntza baten egoeraren adierazle esanguratsuen eta fidagarriena.

Hizkuntza erabiltzea gizakion jardun arrunt ohikoa da. Nonahi, noiznahi, baliatzen dugu hizkuntza. Giza izaeraren bereizgarria da. Baina, testuinguru eleaniztunetan, euskararen kasuan bezala, hizkuntza bat edo bestea erabiltzea ez da jarduera arautua edota patroijakine obeditzen diena. Horrenbestez, hizkuntzen erabilera hori neurtzea ariketa konplexua da, eta metodologia findua eskatzen du. Helburu horri erantzuteko asmoz, sortu eta garatu dugu kaleko hizkuntza-erabilera neurtzeko metodologia.

Kale-erabileraren neurketaren metodologia horri esker, abantaila handiak lortzen dira herriko errealitatera hurbiltzeko, eta, beraz, funtsezkoa bihurtzen da herri-mailan hizkuntza-errealitatea ezagutu edota planifikatu nahi duen edonorentzat. Batetik, lehen aipatu moduan, objektibotasuna lortzen da herriko errealitate soziolinguistikoaz aritzeko garaian. Gainera, herriko hizkuntza-egoera ezagutzeko beste hainbat datu badaude ere (eroldako ezagutza-datuak, ikastetxe eta euskaltegieetako matrikulazio-datuak...), datu horiek guztiak herriko kaleetan entzun daitekeen eguneroko jardunean nabarmentzen dira. Bestalde, ohikoa izaten da baliabide urriak edukitzea euskararen aldeko sustapen-planak egiterakoan eta horrek premiarik handiena duten eremuak zein diren jakitea eskatzen du lehentasunak ezartzeko.

Ondorioz, kale-neurketen emaitzak beharrezkoak dira lehentasun horiek ezartzeko edota datu xeheagoak eskuratze aldera. Izan ere, hainbat erabilera-datu eskura daitezke neurketaren bidez, adin-talde bakoitzak kalean euskara zenbat erabiltzen duen, besteak beste. Era berean, neurketa horiek maiztasunez eginez gero, bilakaera ezagutu ahal izango da, eta, modu horretan, herrian izaten diren hizkuntza-aldaketak gertutik jarraitzeko aukera izango da.



2. Metodologia

2.1 Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren metodologia

Gernika-Lumon egindako kale-neurketaren metodologia Euskal Herriko Hizkuntza-erabileraren Neurketan garaturikoan oinarritua dago. 2.2. atalean azalduko diren fitxa teknikoko moldaketak soilik egin behar izan dira metodologia herriko berezitasunetara egokitzeko.

Hizkuntza-erabileraren Euskal Herriko Kale-neurketa 1989. urtean egin zen lehen aldiz, eta geroztik bost alditan errepikatu da: 1993an, 1997an, 2001ean, 2006an, eta 2011n; 2016. urtean zazpigarrena egin baldin bada ere, emaitzak 2017ko uztailean arigitaratuko dira, eta beraz, ordura arte ezingo ditugu aurrekoekin alderatu. Nolanahi ere, azken neurketetan bezala, bost urtean behin egindako neurketak, besteak beste, eroldako datuekin batera aztertzeke aukera emango dute. Dagoeneko, beraz, hogeita bost urteko esperientzia metatuta, metodologia aski frogatua eta kontrastatua dagoela esan daiteke, gaur egun, euskararen egoera zertan den ezagutzeko ezinbesteko erreferentzia bilakatu direla datu horiek.

Kale-neurketan erabiltzen den teknika behaketa zuzena da; hau da, ezertxo ere galdetu gabe, neurtzaileek herriko kaleetan zehar topatzen duten jendeak darabilen hizkuntza jasotzen da. Hala, bere helburua praktikan hizkuntza bakoitza erabiltzearen ekintzak zenbateko maiztasun erreala duen kontrolatzea da. Izan ere, teknika honen abantaila azpimarragarrienetakoa neurtzaileek hiztunaren joera naturala jasotzen dutela litzateke datuen subjektibotasuna saihestuz eta emaitza fidagarriagoak lortuz.

Landa-lana

Landa-lana behar bezala egiteko, diseinu teknikoaren fasean beharrezkoa da aurrez bi datu zehaztea: ibilbidea eta neurraldiak, hain zuzen ere. Alde batetik, beraz, herriko kalerik jendetsuenak biltzea irizpide nagusitzat hartuz (plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa kaleak, eta abar.) neurtu beharrezko kale horiek finkaturiko ibilbidea(k) definitzen d(ir)a. Bestalde, neurketarako egun eta orduak zehaztu



behar dira, helburu nagusia herriko biztanle guztiak (potentzialki behintzat) neurtzea izanik. Nolabait ere, hautatutako egun eta orduetan herritar guztien hizkuntza-jarduera estatistikoki neurtzeko aukera bildu nahi da neurraldien eta ibilbideen diseinuarekin.

Elkarrizketa-hizkuntza

Oinarrizko behaketa-unitatea taldeko elkarrizketa-hizkuntza da, ez dugu norbanakoaren hizkuntza neurtzen. Beraz, ezinbestean, bi lagun edo gehiagoren arteko elkarrizketak dira zenbatzen direnak. Dena den, bakarrizketa gisa jasotzen ditugu elkarrizketa-mota batzuk: adibidez, mugikorreko elkarrizketen kasua, non hitzun bakarren informazioa jaso biltzen den elkarrizketa-datua.

Bestalde, normalean soilik bat edo bi lagun entzuteko denbora izaten da, eta beraz, taldeko elkarrizketa-hizkuntza definitzerakoan, une horretan hizketan ari denaren hizkuntza hartzen da kontuan talde osoarentzat.

Azkenik, gerta daiteke pertsona batek hizkuntza bat baino gehiago erabiltzea bere jardunean. Kasu horietan, hizkuntza nagusia jasotzen da, gehien erabiltzen duena alegia.

Fitxak

Neurketetan erabilera-datuak biltzeko fitxa bakarra erabiltzen da. Material horren bidez, hitzunen ezaugarriak jasotzen dira, aldagai horiek hizkuntza-erabileran suposatzen duten baldintzapenaren neurri bat ateratzea ahalbidetuz. Hala, erabilera zenbatekoa den jakiteaz gain, hiru aldagai hauek euskararen erabileran duten eragina neurtzeko aukera eskaintzen digu fitxak: sexua, haurren presentzia eta neurtu diren taldeen adin-osaketa.

Neurraldi guztietan erabiltzen da fitxa bera; ikus ondoren fitxa horren irudiak:

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA
SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
T: 943 592 556
kaleneurketak@soziolinguistika.eus

HERRIA: _____
IBILBIDEA: _____
EGUNA: _____ ORDUA: _____
NEURTZAILEAK: _____

	EUSKARA	GAZTELERA	FRANTSESA	BESTERIK	HAURRAK (2-14 urte)	GAZTEAK (15-24 urte)	HELDUAK (24-64 urte)	ADINEKOAK (65-...urte)	Haurrak hitz egiten	
									BAI	EZ
01										
02										
03										
04										
05										
06										
07										
08										
09										
10										
11										
12										
13										
14										
15										
16										
17										
18										
19										
20										

Emakumezkoa
Gizonezkoa

OHARRAK: _____

	EUSKARA	GAZTELERA	FRANTSESA	BESTERIK	HAURRAK (2-14 urte)	GAZTEAK (15-24 urte)	HELDUAK (24-64 urte)	ADINEKOAK (65-...urte)	Haurrak hitz egiten	
									BAI	EZ
21										
22										
23										
24										
25										
26										
27										
28										
29										
30										
31										
32										
33										
34										
35										
36										
37										
38										
39										
40										
41										
42										

Emakumezkoa
Gizonezkoa



“Gernikarren” erabilera baino gehiago, Gernika-Lumoko kaleetakoa

Azaltzen ari garen metodologia honek badu muga bat: ezin da ziurtatu kalean hizketan ari diren hiztun guztiak herrikoak direnik. Horregatik, ez da egokia neurtutakoa herriko biztanleen hizkuntza-erabilera dela esatea, izan ere, neurtutakoa herriko kaleetan jaso den erabilera da. Dena den, herrikoen erabilerara hurbiltzeko asmoz, kasu batzuetan nabarmen kanpotarrak (bisitariak, turistak) direnen elkarrizketak modu berezitan jaso ditugu.

Erabilera-datuen neurketek bere zailtasuna ere badutela gogoan izan behar da, hizkuntza-erabilera aldakorra den heinean. Beraz, kontuan izan behar da datu adierazgarriak jasotzen badira ere, euskararen kale-erabilera hori neurri txiki batean aldagarria dela. Horren arrazoia ulargarria da: kalean noiz norekin topo egingo dugun aurreikusi ezin daitekeenez, euren jarduera neurtzen diren hiztunak ez dira beti berdinak eta horrek herriko euskararen kale-erabileraren datua aldarazi dezake. Muga hori gainditzeko da, besteak beste, bereziki interesgarria maiztasun jakin batekin neurketak egin eta joera nagusiei erreparatzea. Hala eta guztiz ere, metodologia honek emaitzetatik zenbait ondorio orokor ateratzea bermatzen du.

Adierazgarritasuna

Datuen adierazgarritasuna bermatzeko garrantzitsua da laginearen tamainari begiratzea, behatutako elkarrizketa-kopuruari alegia. Are gehiago, aurrez aipaturiko hiru aldagaiek (sexua, adina eta haurren presentzia) euskararen kale-erabileran duten eragina aztertzeko, gutxieneko elkarrizketa-kopuru bat bete behar da adierazgarritasun hori lortzeko. Egia da sarritan gazteen adin-taldean, 15-24 urte bitartekoen artean alegia, kalean behar baino hiztun gutxiago behatzen ditugula; izan ere, adin-talde honen joera erdigunetik haragoko eremuetan biltzea da eta zailtasunak ditugu gure laginean hiztun profil hau txertatzen.

Zentzu horretan, aldagaia zenbat eta zehatzagoa izan (adin-taldeak sexuaren arabera bereizterakoan, adibidez), lagina txikiagoa bihurtzen da, eta datuek adierazgarritasuna galtzen dute beharrezkoa den gutxieneko elkarrizketa-kopurua ez bada jaso. Hau da, aldagai guztiak aztertzeko lagin handia behar izaten da, izan ere, aldagai bat zenbat eta gehiago deskonposatu lagin txikiagoa gelditzen baita. Horrela, adibideari erreferentzia eginez, gerta daiteke behatutako hiztunen adina taldeka banatzeko behar besteko lagina biltzea, baina adin-talde bakoitzean sexuaren arabera azterketa egiteko ez.

Oharrak

Atal honekin amaituz, hona hemen datu-bilketarako neurtzaileek eskura izan dituzten ohar-orriak:

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

Zer neurtu behar da?

Kalean, eta soilik **kalean dabilen jendearen arteko hizkuntza erabilera**. Leku itxiak beraz (tabernak, dendak, kiroldegia, etxeak, lantegiak, garraioak, edonolako lokalak,...), neurtuta honetarik kanpo geratuko dira.

Neurtzaileak

Neurtuta **bikotea** egingo da. Pertsona bakar batek ere egin lezake, baina egokiagoa da neurtzaileak binaka aritzea. Izan ere,

- Errazagoa da. Batek jendeari entzun eta besteari zer apuntatu behar duen esan diezaiola.
- Biren artean askoz hobeto disimulatzen da, eta oso inportantea da saiatzeari inor ez dadin konturatu neurtutako egiten ari garela. Gainerakoan, jendearen jokabide naturalak alda daitezke; isilduz, hizkuntza aldatuz, haserretuz,...

Neurtuta, ez inkesta

Kalean goazela jendea ez zaio galdetu behar normalean zein hizkuntzatan hitz egiten duen edo une horretan zein hizkuntzatan ari den mintzatzen. **Ez galdetu, entzun** egin behar dugu eta entzuten dugun hizkuntza jaso, jendea ezer esan gabe. Gure helburua kaleko hizkuntza-errealitatea bere horretan jasotzea da, ahalik eta modurik objektiboenean. Kalean doazenean ez dute jakin behar neurtuta egiten ari garenik.

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

Datuak nola jaso

Datuak orri berezietan jasoko dira (ikus beheko fitxa-orria). **Elkarriketara bakoitza errenkada batean adieraziko da**, eta lau datu hartuko dira kontuan:

1. **Hizkuntza**: "Euskara", "gaztelera", "frantsesa" eta "beste" (beste hizkuntzak). Hego Euskal Herrian euskara edo gaztelera ez den beste hizkuntza bat entzuten badugu "beste" zutabearen adieraziko dugu. Eta gauza bera egingo dugu, Ipar Euskal Herrian euskara edo frantsesa ez diren beste hizkuntzekin.
2. **Adin taldea**: "Haurrak (2-14 urte bitartekoak)", "gazteak (15-24 urte)", "helduak (25-64 urte)" eta "adinekoak (65 urtetik gorakoak)". Jendeak zein adin izango duen sumatzea neurtzaileen egitekoa izango da, eta gutxi gorabehera egin beharrekoa da.
3. **Generoa**: Mintzakideen sexua jasoko dugu, "emakumezkoa" ala "gizonezkoa" den.
4. Azkenik, **haurrek hitz egiten dutela** jasoko dugu, hau da, elkarriketara entzuten dugun unean 2-14 urte bitarteko haurrak hitzun aktiboak diren "bai" ala "ez".

Neurtuta nola egiten den azaltzeko **HIRU ADIBIDE** jarriko ditugu:

- Bi haur (neska bat eta mutil bat) badoaz euskaraz hitz egiten (**01 elkarriketara**):
 1. Euskaraz laukian "X" markatu.
 2. Haurren zutabearen, emakumezkoen laukian "1" adierazi eta gizonezkoen laukian beste "1" adierazi.
 3. "Haurrak hitz egiten" zutabearen "bai" laukian "X" markatu.
- Senar-emazteak gaztelaz hitz egiten ari dira haien artean, 5 urteko alaba eta 16 urteko semea beraiekin doaz baina hitz egin gabe (**02 elkarriketara**):
 1. Gaztelaz laukian "X" markatu.
 2. Haurren zutabearen emakumezkoen laukian "1" adierazi; gazteen zutabearen gizonezkoen laukian "1"; eta helduen zutabearen emakumezkoen laukian "1" eta gizonezkoen laukian beste "1" markatu.
 3. Haurrak hitz egiten zutabearen "ez" laukian "X" seinatu.
- Bost gazte, bi neska eta hiru mutil, gaztelaz ari dira (**03 elkarriketara**):
 1. Gaztelaz laukian "X" markatu.
 2. Gazteen zutabearen emakumezkoen laukian "2" eta gizonezkoen laukian "3" adierazi.
 3. Haurrak hitz egiten zutabearen "ez" laukian "X" markatu.

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

HERRIA: _____
 IBILBIDEA: _____
 EGUNA: Urriak 08 ORDUA: 18:00-20:00
 SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
 T: 943 592 556
 kaleneurketak@soziolinguistika.eus

NEURTZAILEAK: _____

	EUSKARA	GAZTELERAZ	FRANTSESA	BESTE	HAURRAK (2-14 urte)	GAZTEAK (15-24 urte)	HELDUAK (24-64 urte)	ADINEKOAK (65-... urte)	Haurrak hitz egiten	
									BAI	EZ
01	X				/	/				X
02		X			/		/	/		X
03		X				2	3			X
04	X								2	X
05		X							2	X
06				X			/	/		X
07			X		2		/			X
08		X				/	/			X
09		X						/	/	X
10		X					2			X
11	X					4				X
12	X				/		/			X
13	X						3			X
14	X				2		/			X
15		X					2	/		X
16		X			/	/				X
17	X					2	/			X
18	X				/		/	/		X
19	X				3		/			X
20	X				/	/				X

Emakumezkoa Gizonezkoa



2.2 “Gernika-Lumo, 2016” neurketaren fitxa tekniko

Prozedurak

Aurreko puntuan azaldutako metodologiako xehetasun guztiak baliagarriak dira *Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren* berri emateko ere. Ez ditugu, hortaz, errepikatuko.


Ibilbideak

Arestian aurreratu moduan, ibilbide bakoitzaren nondik norakoa zehazterakoan eta definitzerakoan, herriko kalerik jendetsuenak biltzea izan da irizpide nagusia: plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa-kaleak, eta abar. Ibilbidearekin batera, neurketa egiteko egunak eta orduak ere zehaztu ditugu, eta horiek hautatzean, herriko biztanle guztiak (potentzialki, behintzat) neurtu ahal izatea izan da gure helburua; alegia, hautatutako egun eta orduetan herritar guztiek edukitzea neurtuak izateko aukera.


Irizpide horiekin antolatu ditugu 2016ko *Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa* egiteko ibilbideak. Nolanahi ere, Gernika-Lumon bada kontuan hartzeko moduko ezaugarri bat, izan ere, hiruna ibilbide osaturiko bi multzotan banatu behar dira ibilbideak: lehenengoan, udalerriko datu orokorra definitzeko erabili izan ohi den erdiguneko 3 ibilbideak biltzen dira (Lurgorri, Erdigunea eta Erreterria/Lorategieta), eta, bigarrenetan, ikastetxe inguruetako hizkuntza-erabilera berariaz aztertzeko erabilitako 3 ibilbideak (Seber Altube ikastola, Allende ikastetxea eta Insitutu inguruko ibilbideak). Diseinu horrek, ondoren ikusiko den bezala, garrantzia du ikerketaren laginaren ezaugarrietan eragin zuzena duelako, eta datu orokorreko emaitza gehiegizko pisua hartuz baldintzatzen duelako, neurri batean behintzat.

Jarraian bildu ditugu zehatz-mehatz ibilbide bakoitzean neurtutako kaleak.

1. **Erdialdea:** San Juan Ibarra, Don Tello, San Roke, Barrenkale, Arte kale, Pablo Picasso, Arrien Pasealekua, Juan Kaltzada, Alhondiga eta industrialdea




2. **Lurgorri:** Gurutze Gorria, Juan Calzada kalea (Bengoetxe, Zallo Barri eta Eguzki tabernak), San Kristobal Plaza, monopatin gunea, Ai Ene taberna eta ingurua, Rotonda eta autobus geltokia:




3. Erreterria / Lorategia: San Bartolome, Hurrengo Errota, Erreka Zaharra, Kalekotxu -plaza txikia, Merzede, Uharte eta Zubia




4. Ibilbidea: Allende Salazar ikastetxea, Mestikabaso, San Frantzisko Parrokiaren ingurua



5. **Ibilbidea:** Merkatu plaza, Urkieta kalea, Carlos Gangoiti, eta Gernikako Institutua



6. **Ibilbidea:** Seber Altube ikastola, Europako Parkea, Allende Salazar ikastetxea, Mestikabaso, San Frantzisko Parrokiaren ingurua.



Landa-lana

Landa-lanari dagokionez, 2016ko irailaren 22tik urriaren 23ra bitartean egin dugu, eta Gernika-Lumoko kasuan neurraldi hauen arabera osatu da egutegia:

IBILBIDEAK		Datak	Ordutegia
ERDIGUNEKO 3 IBILBIDEAK	1. ibilbidea: Erdialdea: San Juan Ibarra, Don Tello, San Roke, Barrenkale, Artekale, Pablo Picasso, Arrien Pasealekua, Juan Kaltzada, Alhondiga eta industrialdea	Irailak 28, asteazkena	18:00 – 20:00
		Urriak 15, larunbata	11:00 - 13:00; 18:00 – 20:00
	2. ibilbidea: Lurgorri: Gurutze Gorria, Juan Calzada kalea (Bengoetxe, Zallo Barri eta Eguzki tabernak), San Kristobal Plaza, monopatin gunea, Ai Ene taberna eta ingurua, Rotonda eta autobus geltokia	Irailak 21, asteazkena	18:00 – 20:00
		Irailak 24, larunbata	11:00 - 13:00; 18:00 – 20:00
	3. ibilbidea: Errenteria/Lorategieta: San Bartolome, Hurrengo Errota, Erreka Zaharra, Kalekotxu -plaza txikia, Merzedo, Uharte eta Zubia	Irailak 28, asteazkena	18:00 – 20:00
		Urriak 15, larunbata	11:00 - 13:00; 18:00 – 20:00
ESKOLA INGURUKO 3 IBILBIDEAK	4. ibilbidea: Allende Salazar ikastetxea, Mestikabaso, San Frantzisko Parrokiaren ingurua.	Urriak 10, astelehena	13:00 – 15:30; 16:00 – 18:00
	5. ibilbidea: Merkatu plaza, Urkieta kalea, Carlos Gangoiti, eta Gernikako Institutua	Urriak 17, astelehena	13:00 – 15:30; 16:00 – 18:00
	6. ibilbidea: Seber Altube ikastola, Europako Parkea, Allende Salazar ikastetxea, Mestikabaso, San Frantzisko Parrokiaren ingurua.	Urriak 24, astelehena	13:00 – 15:30; 16:00 – 18:00
NEURKETA ORDUAK: 34 ordu			



Unibertsoa, lagina eta emaitzen adierazgarritasuna

Unibertsoa: Gernika-Lumoko kaleetan entzun daitezkeen elkarrizketak.

Lagina: behaketa egin dugun bitartean, behatu ditugun 1.948 elkarrizketek eta horietan solaskide izan diren 5.491 herritarrek osatu dute lagina ¹.

Akats-tartearen kalkulua erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria): Akats-tartea bertakoen datuekin kalkulatu dugu. $\pm 2,22$ ekoa elkarrizketen lagin osoarentzat, %95,0ko konfiantza mailan, eta $p=49,4$ izanik (behatutako bertakoen elkarrizketen artean euskarazkoek osatu duten ehunekoa).

2.3 Laginaren osaera

Behatutako 1.948 elkarrizketa eta horietan solaskide izan diren 5.491 herritarren ezaugarriak jakitea beharrezkoa da unibertsoaren ordezkagarritasuna aztertzeko garaian. Hau da, gure azterketarako laginaren osaerari erreparatzea garrantzitsua da gernikarren ezaugarriak modu berean bildu ote diren jakiteko eta zer nolako akats tartea dugun jakiteko. Beraz, laginaren osaerari erreparatuz, azterketan egin dezakegun akats tartearen balorazio bat egingo dugu.


Hala eta guztiz ere, laginaren osaera eta gernikarren adin-tarteen zein sexuaren pisuaren proportzionaltasunaren alderaketa neurri batean da kontuan hartzekoa, izan ere, ez baita bere horretan gure helburua herritarren erabileraren argazkia ateratzea, baizik eta Gernika-Lumoko kaleetan entzuten den erabilera neurtzea. Kaleetan entzuten diren elkarrizketak ez dira soilik herritarren artekoak izaten, eta elkarrizketetan parte hartzen duten pertsonak ez dute zertan herritarrek dituzten ezaugarri berberak izan beharrik.

¹ EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren Zentsuaren arabera 2011n Gernika-Lumon 16.029 herritar bizi ziren.

Adin-tarte osaera

Batetik, lagina osatu duten hiztunen adinean jarriko dugu arreta, lehenengo grafikoan ikus daitekeenez. Lagineko hiztun gehienak 25-64 urte bitartekoak (%44,1) dira. Ondoren, 2-14 urte bitartekoak (%38,4) eta 64 urtetik gorakoak (%10,9) behatu ditugu gehien. Azkenik, 15-24 urte bitartekoak dira (%6,4) laginean pisu gutxien duten hiztunak.

1. GRAFIKOA eta TAULA: LAGINAREN ADIN-TARTE OSAERA, UNIBERTSOAREKIN ALDERATUZ. GERNIKA-LUMO, 2011-2016



	LAGINA (2016)		UNIBERTSOA (2011)	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)
2-14 urte	2.110	38,4	1.806	11,2
15-24 urte	356	6,4	1.460	9,1
25-64 urte	2.425	44,1	9.348	58,3
>64 urte	600	10,9	3.415	21,3
GUZTIAK	5.491	100	16.029	100

Iturria: Lagina: Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016. Unibertsua: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011.

Laginaren eta unibertsuaren arteko alderaketa eginez ikus daiteke, haurren eta helduen proportziotan nabarmentzeko desoreka dagoela. Laginean %38,4koa da haurren ehunekoa eta errealitatean berriz %11,2koa dute (ia 27 puntuko aldea, beraz). Helduen kasuan berriz, unibertsuarekin alderatuta (%58,3 hartzen dute bertan) laginaren ehunekoa txikiagoa da (%44,1); hamalau puntuko aldea dago bien artean.


Lagineko haurren pisuaren inguruan aipagarria da Euskal Herriko kaleetan ohikoa izaten dela haur gehiago egotea demografikoki duten pisua baino. Eta hala gertatu ohi da kaleko erabileraren neurketa askotan. Nolanahi ere, Gernikako kasuan, berariaz egindako ikastetxe

inguruko behaketa sakonak, berez indartu du haurren presentzia ikerketan, eta, horren ondorioz, laginaren 10etik ia 4 haurrak dira. Emaizta nagusiak interpretatzeko orduan kontuan hartzekoa izango da datu hori.

Sexu osaera

Bestetik, komenigarria da sexuaren arabera lagina nola osatzen den kontuan izatea, horrek ere emaitzen interpretazioan eragina izan baitezake.

2. GRAFIKOA eta TAULA: LAGINAREN ETA UNIBERTSOAREN OSAERA, SEXUAREN ARABERA. GERNIKA-LUMO, 2011-2016



	LAGINA (2016)		UNIBERTSOA (2011)	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)
Emakumezkoak	3.124	56,9	8.323	51,3
Gizonezkoak	2.367	43,1	7.706	48
GUZTIAK	5.491	100	16.029	100

Iturria: Lagina: Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016. Unibertsoa: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011


Bigarren grafikoan ikus daitekeenez, Gernika-Lumoren biztanleriaren %51,3 emakumezkoak eta %48 gizonezkoak dira EUSTAT-en 2011ko erroldaren arabera. Laginean errealitatean bezalaxe emakumezkoek pisu gehiago hartu dute, baina unibertsoetik laginera gizonezkoen eta emakumezkoen kopuruetan gorabeherak daude (gizonezkoak bost puntu gutxiagoz jaso dira, %43,1eko pisua hartuz; eta emakumezkoak, berriz, bost puntu gehiagoz, %56,9ko pisua hartuz), eta azterketan kontuan hartu beharrekoak dira. Biztanleriaren datu orokorren artean, bi sexuen arteko aldea oso txikia da eta gure behaketan emakumeak gehiago dira; arretaz begiratuko da ondorioak ateratzeko.

3. Erabilera Gernika-Lumon, 2016. urtean: emaitza orokorra

3.1 Hamar elkarrizketatik bost euskaraz, Gernika-Lumon

Gernika-Lumoko kaleetan entzundako 10 elkarrizketetatik bost, %49,4 zehatzago esateko, euskaraz izan dira. Gainerakoak gaztelaniaz (%47,3) zein beste hizkuntza batzuetan izan dira (%3,3) 2016ko irailean eta urrian egindako neurketaren arabera.

3. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA. GERNIKA-LUMO, 2016




	Kop.	(%)
Euskaraz	2.714	49,4
Gaztelaniaz	2.596	47,3
Beste hizkuntzetan	181	3,3
GUZTIRA	5.491	100,0

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016.

Datu hau aztertzeke orduan kontuan izan behar da Gernika-Lumoko diseinuan bi ibilbide-multzo bereizi izan direla. Alde batetik, hiru lehenak udalerriko erabilera orokorra behatzeko diseinatutakoak dira (eta ibilbide horietako datuekin oinarritu izan da orain arte emaitza nagusia), eta ikastetxe inguruetako euskararen erabilera aztertzeke egindako hiru ibilbideetako behaketa. Azken horietako datuak berariaz aztertzekeoak diren arren, datu horiek ere bildu ditugu udalerri osokoa emateko.

Ondorengo grafikoan eta taulan ikus daitezke aipatutako

4. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAREN KALE-ERABILERA, ZONALDEAREN ARABERA. GERNIKA-LUMO, 2016 (EUSKARAZ, %)



	Datu orokorrak	Erdiguneko 3 ibilbideak	Eskola inguruko ibilbideak
Euskaraz	49,4	40,6	61,8
Gaztelaniaz	47,3	55,6	35,6
Beste hizkuntzetan	3,3	3,8	2,6
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behartutako solaskideak)	5.491	3.211	2.280

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko hizkuntzen kale-erabileraren neurketa, 2016.

Laugarren grafikoan eta taulan ikus daitekeenez, nabarmentzeko aldea dago udalerriko erdiguneko hiru ibilbideetan jasotako datu orokorraren (%40,6) eta eskola inguruko erabilera behatzerakoan jasotakoaren artean (%61,8), 21 puntuko aldea ikusi baita multzo batekoaren eta bestekoaren artean. Kontuan izanda, eskola inguruko ibilbideetan jasotako lagina (2.280 solaskide) lagin osoaren (5.491) %41a osatzen duela, ondoriozta daiteke, jasotako batez besteko %49,4ko datu horretan, berebiziko pisua hartu duela eskola inguruko erabilerak (%61,8). Datuok aztertzeke orduan, komenigarria izango da gertakari hori kontuan izatea.

2016eko irailean eta urrian Gernika-Lumoko udalerrian egindako neurketa nola egin den (erabilitako metodoa, alegia) zehatz-mehatz azaldu da txosten honetako 2. atalean. Gogora dezagun, besterik gabe, 1.948 elkarriketa behatu ditugula Gernika-Lumon, eta 5.491 lagun izan direla guztira elkarriketa horietako solaskide. Ikerketa sozialean erabili ohi diren parametroetan, kopuru handia da hori 16.029 hitzun dituen



herri batentzat. Termino estatistikoetan, esan daiteke euskarazko elkarrizketen %49,4ko datu horri $\pm$ %2,22ko akats-tartea dagokiola, %95,0ko konfiantza mailan, unibertso osoaz hitz egiterakoan. Oinarri sendoa dugu, beraz, herritarren hizkuntza-portaerak deskribatzeko.

3.2 Testu-inguratzeko bi datu garrantzitsu: herritarren hizkuntza-gaitasuna eta hortik espero daitekeen erabilera-maila

Ehuneko 49,4koa da, hortaz, euskararen erabilera Gernika-Lumon. Hori asko den edo gutxi den hausnartzeko, ezinbestekoa iruditzen zaigu, ezer baino lehen, beste bi datu aintzat hartzea: herrian euskaraz hitz egiteko gai direnen kopurua batetik (euskaldunen kopurua, alegia) eta euskaldun kopuru horretatik “espero daitekeen erabilera” bestetik. Jarraian aurkeztuko ditugu datuok.


Gernikarren hizkuntza-gaitasuna

EUSTATEk 2011. urtean egindako Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikaren arabera, biztanleriaren %67,6 euskalduna zen Gernika-Lumon. Beste zati batek (%16,0), euskalduna izan gabe, bazuen euskararen nolabaiteko ezagutza bat, ulermen mailan, behintzat, eta gainerako %16,4a erdalduna² zen, euskara ulertu ez eta hitz egiten ere batere ez zekitenak. Horiek dira Gernika-Lumoko herritarren hizkuntza-gaitasunari buruz argitaratu diren daturik berrienak.

² Kategoria horiek euskararen jakite mailari buruz egiten diren lau galderei (ulertzen duzu?, hitz egiten duzu?, irakurtzen duzu?, eta idazten duzu?) erantzundakoaren arabera lortu dira. Aukeran ematen diren erantzunak (ezer ez, nekez, eta ondo) konbinatuz, zazpi hiztun-kategoria sortzen dira, eta zazpi horiek bilduz, guk aurkeztutako hirurak.

		ULERTU	HITZ EGIN	IRAKURRI	IDATZI
EUSKALDUNAK	ALFABETATUAK	Ondo	Ondo	Ondo	Ondo
	ERDI-ALFABETATUAK	Ondo	Ondo	Nekez	Nekez
	ALFABETATUGABEAK	Ondo	Ondo	Ez	Ez
IA EUSKALDUNAK	ALFABETATUAK	Ondo/ Nekez	Nekez	Ondo/ Nekez	Ondo/ Nekez
	ALFABETATUGABEAK	Ondo/ Nekez	Nekez	Ez	Ez
	PASIBOAK	Ondo/ Nekez	Ez	Ez	Ez
ERDALDUNAK		Ez	Ez	Ez	Ez

5. GRAFIKOA eta TAULA. EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA. GERNIKA-LUMO, 2011



	Kop.	(%)
Euskaldunak	10.832	67,6
Ia euskaldunak	2.562	16
Erdaldunak	2.635	16,4
GUZTIAK	16.029	100

Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011

Espero daitekeen euskararen erabilera

Udalerri bateko hizkuntzen erabilaren neurketa abiatzerakoan helburua izan ohi da ezagutzea, zein neurritan erabilera-maila hori euskal hiztun-proportzioarekin bat datorren. Hau da, zein proportziotan hitz egiten duten euskaldunek euskaraz testuinguru elebidun edo eleaniztun batean. Hizkuntza-erabilaren konplexutasuna ulertzeko ekarpen berezia egin zuen J.L. Alvarez Enparantza *Txillardegik* 2001. urtean, bere *eredu matematikoa* garatu zuenean³. Eredu horren bitartez, gune elebidun jakin batean *espero daitekeen euskararen erabilera* kontzeptua definitu eta kalkulatzeko modua aurkeztu zuen, honako ezaugarriekin:

- Harreman-testuinguru hipotetiko batean, non eta gizakiek euren arteko hizketaldiak ausaz egingo lituzketen (egoera isotropikoa),
- gune jakin bateko euskaldunen proportzioa kontuan hartuta, eta

³ Gaiari sakontzeko ikus Alvarez Enparantza, J. L., Txillardegi, 2001, Hacia una Socio-Lingüística Matemática. Donostia: Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen; Isasi, X eta Iriarte, A, 1998, "Euskararen kale-erabilera. Txillardegiaren eredu matematikoa", *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 28, 51-80 orr.

- euskaldunek euskaldunekin beti euskaraz egingo dutenaren hipotesia emanda (euskararekiko leialtasun erabatekoa),
- *espero daitekeen euskararen erabilera (erabilera isotropikoa)* kalkula daiteke,
- honako formularen bidez:

$P_B = m_B (w_2 e_x^2 + w_3 e_x^3 + w_4 e_x^4)$
P_B = euskararen erabilera-maila m_B = euskararekiko leialtasuna e_x = elebidunen proportzioa w_2 = bikoteen pisua w_3 = hirukoteen pisua w_4 = laukoteen pisua

Esan bezala, *espero daitekeen euskararen erabilera (erabilera isotropikoa)* kontzeptua harreman-testuinguru hipotetiko bati dagokio, eta ez da, beraz, praktika errealari loturiko kalkuluaren emaitza. Nolanahi ere, zalantzarik gabe, *erabilera isotropikoaren* balioak lagun dezake hiztun euskaldun eta ez-euskaldunez osatutako testuinguruetan, euskal hiztunen hizkuntza-hautua neurri batean ulertzen.

Gure kasuan: Gernika-Lumon neurtutako erabilera (%40,6 euskaraz) handia edo txikia den balioztatzeko, bertako herritarren artean euskaldunek osatzen duten tartea kontuan hartuko da (esan bezala, %67,6 ziren euskaldunak 2011n). Aplika dezagun formula hori Gernika-Lumoko errealitatera.

$$P_B = 1,0 \cdot (0,60 \cdot 0,676^2 + 0,22 \cdot 0,676^3 + 0,18 \cdot 0,676^4) = 0,384 = \%38,4$$


Kalkuluak eginda, hortaz, Gernika-Lumon %38,4koa da baldintza horietan *erabilera isotropikoa*. Beraz, Gernika-Lumoko biztanleen arteko zorizko harreman posibleetan, eta euskaldunek euskaldunekin beti euskaraz jardunez gero, %38,4koa da *espero daitekeen euskararen erabilera*.

3.3 Euskararen erabilera Gernika-Lumon, hizkuntza-gaitasuna eta erabilera isotropikoa aintzat hartuta

Jar ditzagun taula eta grafiko batean orain arte aipatu ditugun hiru datu nagusi horiek:

Seigarren grafikoan eta taulan ikus daitekeen bezala, euskararen erabilera ezagutzarena baino txikiagoa da Gernika-Lumon. Zehazki, elebidunen kopurua (%67,6ak) euskararen erabilera baino hemezortzi puntu altuagoa da (%49,4).

6. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, HORREN ARABERA ESPERO DAITEKEEN ERABILERA ETA EUSKARAREN KALE-ERABILERA ERREALA. GERNIKA-LUMO, 2011-2016 (%)



	(%)
Hizkuntza-gaitasuna 2011 (euskaldunen %a)	67,6
Erabilera erreala 2016	49,4
Espero daitekeen erabilera 2011 (kalkulua)	38,4

Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016; EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011.

Espero daitekeen erabilera-daturako Soziolinguistika Klusterraren kalkulua.

Kontuan izan behar dugu ia kasu guztietan euskaldunak gaztelaniadunak ere badirela (euskaldun elebakarrak haurren artean soilik topa daitezke), eta hizkuntza bat zein bestea erabil dezaketela. Eta, jakina, euskaraz hitz egiteko gai ez den mintzakidearekin beti hitz egingo dute gaztelaniaz; mintzakide elebidunarekin, berriz, euskaraz edo gaztelaniaz hitz egin ahal izango dute. Beraz, ezinezkoa da euskararen erabilera ezagutzaren mailakoa izatea. Hori horrela izan dadin (erabilera eta ezagutza bat etor daitezen), bi baldintza bete beharko lirateke: euskaldunek inolako harremanik ez izatea euskaldun ez direnekin, eta euskaldunen artean ere euskara besterik ez erabiltzea.



Aintzat hartzeko beste erreferentzia baldintza isotropikoetan euskaldunek leial jokatzuz gero “espero daitekeen erabilera” dugu. Kopuru hori %38,4koa da Gernika-Lumon. Horren argitara, Gernika-Lumon euskararen erabilera erreala (%49,4) baldintza isotropikoetan espero daitekeen erabileraren datutik 11 puntu gainerik dago.

Ezin dugu ahaztu honakoa erreferentzia teorikoa dela eta jakin badakigula harreman-sareak ez direla ausazkoak izaten. Hots, edonork ez duela edonorekin harremanik izaten (harreman gehiago dugu gure ingurukoekin eta adin berekoekin, adibidez, eta herriko zenbaitekin ez dugu inoiz harremanik izaten). Era berean, badakigu euskaldunen leialtasuna ez dela %100ekoa izaten eta euskara dakitenen arteko elkarriketak ez direla beti euskaraz izaten.


Horiek guztiak horrela izanik, erabilera erreala “ausazko erabilerarako espero daitekeena” baino hamaika puntu handiagoa izateak, zeharka, zera adierazi nahiko luke: herriko euskaldunen arteko harreman-sarea ausaz aurreikusi daitekeena baino biziki sendoagoa dela, eta, hortaz, euskaldunen leialtasunaren nolabaiteko seinale ere badela datu hori.

4. Erabileraren bilakaera Gernika-Lumon (2001-2016)

4.1 Euskararen erabilerak bi puntu eta erdi jaitsi da azken bost urtean

2016koaren aurretik, Gernika-Lumoko kaleetako hizkuntza-erabilera beste hainbat aldiz neurtu da, gehienetan, Euskal Herriko Kale Erabileraren Neurketa orokorraren baitan. Egindako neurketen arabera, bi motatako bilakaerak erakuts daitezke: alde batetik, udalerrian jasotako ibilbide guztietako datuak kontuan hartuta, alegia, ikastetxe inguruetan egindako behaketa berezietakoak barne, eta, beste alde batetik, udalerriko erdiguneko 3 ibilbideetan jasotakoak erakusten dutenak. Zazpigarren grafikoan eta taulan ikus daitezke datuok.

7. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. GERNIKA-LUMO, 2001-2016. EUSKARAZ (%)



	2001	2006	2011	2016
Erdiguneko 3 ibilbideak	52,6	51,7	48,9	40,6
(Solaskide kop.)	1.987	2.011	4.341	3.211
Datu orokorrak	55,3	57,3	52,0	49,4
(Solaskide kop.)	2.390	3.440	6.098	5.491

Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketak, 2001, 2006, 2011 eta 2016.


Zazpigarren grafikoan ikus daitekeenez, Gernika-Lumon egindako neurketetan, ibilbide guztiak biltzen dituen datuen bilakaeran ikus daiteke 15 urtean sei puntuko jaitsiera izan duela kaleko euskararen erabilerak, azken bost urteotan (2011 eta 2016 bitartean) bi puntu eta erdikoa.

Aldiz, erdiguneko 3 ibilbideetan, jaitsiera hori handiagoa izan da, hain zuzen ere, zortzi puntukoa izan baita azken bost urteotako epean⁴, nabarmentzeko jaitsiera, hamar urte lehenagoko tartean (2001-2011) erabileran jaitsiera lau puntukoa izan delako.

4.2 Ezagutzaren bilakaera

Euskararen erabilera ulertzeko Gernika-Lumon interesgarria da aztertzea herritarren hizkuntza-gaitasunak izan duen bilakaera. Ondorengo grafiko eta taulatan ikus daitezke herritarren hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak, 1986. urtetik 2011. urtera bitartekoak.

8. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNAREN BILAKAERA. GERNIKA-LUMO, 1986-2011



	1986 (kop.)	1991 (kop.)	1996 (kop.)	2001 (kop.)	2006 (kop.)	2011 (kop.)
Euskaldunak	9.659	10.106	10.705	10.315	10.552	10.832
la euskaldunak	2.892	2.543	2.030	2.548	2.779	2.562
Erdaldunak	2.726	2.794	2.432	2.021	2.216	2.635
GUZTIAK	15.277	15.443	15.167	14.884	15.547	16.029

	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)
Euskaldunak	63,2	65,4	70,6	69,3	67,9	67,6
la euskaldunak	18,9	16,5	13,4	17,3	17,9	16
Erdaldunak	17,9	18,1	16	13,4	14,2	16,4
GUZTIAK	100	100	100	100	100	100

Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak eta Estatistikak, 1986, 1991, 1996, 2001, 2006, 2011.

⁴ Gogoratu behar da, hemen, 2011ko datuak aztertzerakoan emandako udalerriko erabileraren datu orokorra erdiguneko 3 ibilbide orokorreirei soilik zegokiela (%48,9). Beraz, orain, ikastetxe ingurutako datuak barneratzerakoan, datu orokor hori egokitu behar da: %52 2011ko euskararen erabilera orokorra (ikastetxe inguruetako ibilbideetakoak barne).




Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera aztertzeko EUSTAT-ek bost urtean behin egiten duen zentsuko datuak erabil daitezke. Gernika-Lumoko biztanleen hizkuntza-gaitasunak lehen hamar urteko igoeraren ondoren beheranzko joera hartu du 1996. urtetik aurrera, hiru puntu galduz ditu 15 urtean (2001-2011 bitartean), nahiz eta 2006 eta 2011 bitarteko azken bost urteetan egonkor mantendu den. Joera hori sendotu den, edo zer nolako aldaketak gertatu diren jakingo da EUSTAT-ek 2016ko datuak argitara ematen dituenean.

5. Euskal Herriko, EAEko eta beste herrietako datuekin alderaketa

5.1 Euskal Herriko, EAEko, Bizkaiko eta inguruko herrien kale-erabileraren datuekiko alderaketa

Ondorengo grafikoan, Euskal Herrian, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Bizkaian jasotako datuak alderatuko ditugu. Ereku geografiko horietako daturik eguneratuenak 2011koak dira, eta Gernika-Lumoko 2016koekin erkatuko ditugu.

9. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKAL HERRIKO, EAEko, BIZKAIKO ETA GERNIKA-LUMOKO KALEKO HIZKUNTZEN ERABILERAREN ARTEKO ALDERAKETA. GERNIKA-LUMO, 2016. EUSKARAZ (%)



Euskararen kale-erabilera 2011/2016	
Euskal Herria 2011	13,3
EAE 2011	16,1
Bizkaia 2011	9,4
Gernika-Lumo 2016	49,4


Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa (2016) eta Euskal Herriko hizkuntzen kale-erabileraren neurketa (2011).

Bederatzigarren grafikoak eta taulak erakusten dutenez, Gernika-Lumoko euskararen kale-erabilera Euskal Herrikoaren gainetik dago (%13,3) nabarmen, baita EAEkotik (%16,1) ere. Bizkaiko batez besteko erabilera baino altuagoa ere bada (%9,4), 40 puntu altuagoa, hain zuzen.

5.2 Hizkuntza-gaitasuna, kaleko erabilera eta espero daitekeen erabilera, Euskal Herriko, EAEko, Bizkaiko eta Gernika-Lumoko datuekiko alderaketa

Orain arte eskainitako datuak apur bat testu inguratzeko, kontuan har ditzagun eremu bakoitzeko herritarren hizkuntza-gaitasuna eta hizkuntza-gaitasun horren arabera “espero daitekeen erabilera” edo erabilera isotropikoa. Datu horiek 10. grafiko eta taulatan ikus daitezke.

10. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZA-GAITASUNA, KALEKO ERABILERA ETA ESPERO DAITEKEENA. EAEKO, BIZKAIKO, GERNIKA-BERMEOKO ETA GERNIKA-LUMOKO KALEKO HIZKUNTZAREN ERABILERAREN ARTEKO ALDERAKETA. 2011-2016 (%)



	Hizkuntza-gaitasuna 2011	Erabilera erreala 2011/2016	Espero daitekeen erabilera 2011
EAE (2011)	37,2	16,1	9,8
Bizkaia (2011)	31,3	9,4	6,7
Gernika-Lumo (2016)	67,6	49,4	38,4




Iturria: Gaitasunetarako EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011. Gernika-Lumoko (2016) kale-erabilerarako Soziolinguistika Klusterrak eginiko Hizkuntzen-erabilera neurketak. Espero daitekeen erabilerarako Soziolinguistika Klusterreko kalkuluak.

Hizkuntza gaitasunari dagokionez, Gernika-Lumoko datua (%67,6) EAEkotik 40 puntu gorago (%31,3) dago, eta Bizkaikotik (%31,3) 46 puntu gorago. Horren arabera, espero daitekeen erabilera eta erabilera erreala ere nabarmen altuagoak dira Gernika-Lumon (erabilera isotropikoa EAEn %9,8, Bizkaian %6,7, Gernika-Lumon %38,4; erabilera erreala EAEn %16,1, Bizkaian %9,4, Gernika-Lumon %49,4).

5.3 Beste zenbait herrirekiko alderaketa

Datuok apur bat gehiago testuinguratzeko, aurrez neurketa bereziak egin diren beste bi udalerrirekin alderatu ditugu Gernika-Lumokoak: hain zuzen ere, Bermeoko eta Usurbilgoekin. Bermeo Busturialdean kokatuta dago eta Gernika-Lumorekin batera eskualdeko erreferentziatzko herria da. Usurbilekin alderaketa, berriz, interesgarri ikusi dugu beste lurralde batean kokatua egon arren, hizkuntza-gaitasunari buruz Gernika-Lumokoen antzeko baldintzak ematen baitira.

11.GRAFIKOA eta TAULA: EZAGUTZA, ERABILERA ETA ESPERO DAITEKEEN ERABILERA HAINBAT UDALERRITAN, 2016. (%)



	Hizkuntza-gaitasuna 2011	Erabilera erreala 2016	Espero daitekeen erabilera 2011
Gernika-Lumo	67,6	49,4	38,4
Bermeo	72,7	33,6	45,2
Usurbil	69,7	54,0	40,9

Iturriak: Gaitasunerako: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011. Kale-erabilerarako: 2016ko Bermeoko Usurbilgo eta Gernika-Lumoko hizkuntzen-erabileraren neurketak. Espero daitekeen erabilerarako: Soziolinguistika Klusterraren kalkuluak.

Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, Gernika-Lumon euskaldunen proportzioa (%67,6) Bermeokoa (72,7) eta bi puntu baxuagoa Usurbilgoa baino (%67,7). Euskararen erabileran, ordea, ikus daiteke Bermeokoa (%33,6) baino nabarmen altuagoa dela (16 puntu), baina Usurbilgoa (%54) baino bi puntu baxuagoa.



6. Zonaldekako emaitzak


Herritarrek leku publikoetan zer hizkuntza erabiltzen duten neurtzea xede izanik, herriko bizitza soziala gertatzen den zonaldeetan egin da behaketa. Zonalde horiek zehazteko, udalerriko herritarren harreman-gune nagusiak non kokatzen diren zehaztu ohi dugu, eta behin zonalde horiek definitu ostean, zonalde bakoitzaren barruan zer ibilbideri jarraitu behar zaion erabaki, udaleko teknikariekin elkarlanean. Gernika-Lumoko kasuan, sei eremutan banatu dugu udalerria. Horietako hiru herriko errealitate orokorra aztertzekeo ibilbideak dira. Beste hiru, aldiz, ikastetxe inguruko egoera berariaz aztertzekeo diseinatutako ibilbideak.

6.1 Ibilbide guztien arteko alderaketa

Ondorengo grafikoan eta taulan ikus daitekeenez, oso nabarmentzekoa da Gernika-Lumon egindako ibilbideen arabera azterketa, eta komenigarria da datuak bereiztea bi ibilbide-multzo horien arabera. Alegia, alde batetik, udalerri orokorra biltzen dituen hiru lehen ibilbideetako datuak (Errenteria/Lorategieta, Erdigunea eta Lurgorri), eta, bestetik, eskola inguruetako hiru ibilbideetako multzoa (Institutu ingurua, Allende ikastetxe ingurua eta Seber Altube ikastola ingurua).

Gernika-Lumoko orokortasuna biltzen dituen hiru ibilbideak (%43,3 Lurgorri, %39,9 Erdigunean eta %37 Errenteria/Lorategietan) %37tik %43,3ko euskararen erabileraren artean kokatzen dira. Aldiz, eskola inguruetan, berariaz egindako neurketaren arabera, emaitzak oso bestelakoak dira. Seber Altube ikastolaren eta Allende ikastetxeari dagokienean, euskararen erabilera nabarmen handiagoa da, %74,2koa eta %69koa hurrenez hurren; bere aldetik ordea, Institutu inguruko datua (%42,5) bi eskola horietan jasotakotik aldentzen da nabarmenki, gehiago hurbilduz udalerriko gainerako ibilbideetan bildu denari.

12. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAREN KALE-ERABILERA, ZONALDEAREN ARABERA. GERNIKA-LUMO, 2016 (EUSKARAZ, %)



	Guztira	Erreterria/ Lorategieta	Erdigunea	Lurgorri	Institutu ingurua	Allende ikastetxea	Seber Altube ikastola
Euskaraz	49,4	37,0	39,9	43,3	42,5	69,0	74,2
Gaztelaniaz	47,3	57,5	55,6	54,8	55,2	25,8	25,1
Beste hizkuntzetan	3,3	5,5	4,5	1,9	2,3	5,1	0,7
	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	5.491	489	1.637	1.085	777	681	822

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko hizkuntzen kale-erabileraren neurketa, 2016.

Eskola inguruetan egindako behaketari dagokionez, aipagarria da Seber Altube ikastolaren inguruan neurtu dela euskararen erabilera altuena (%74,2); bost puntu baxuagoa izan da Allende ikastetxearen inguruko euskarazko elkarrizketen ehunekoa (%69), eta Institutuaren inguruan, berriz, euskararen erabilera baxuena behatu da (%42,5), lehen esan bezala, udalerriko ibilbide orokorretara gehiago hurbilduz. Datu hori oso arretaz hartzekoa izan daiteke, hain zuzen, adinaren arabera banaketari egotzi dakiokeelako, Allende eta Seber Altubeko ikasleak haurrak eta nerabe gazte-gazteak diren bitartean Institutuko ikasleak, nerabe eta gazteak direlako. Beraz, bertan populazio horien euskararen erabilera desberdina agerian jarri dela esan daiteke.


Bestalde, ikastetxe inguruko datuon azterketan, bada azpimarratzekoa den beste datu bat, alegia, euskara ez beste hizkuntzen erabileran dagoen nabarmentzeko aldea: Seber Altube ikastolaren inguruan %1era heltzen ez den bezala (%0,7 beste hizkuntzen erabilera), Allende ikastetxearen inguruan %5,1ekoa da, eta Institutu inguruan %2,3koa. Arretaz begiratzeko datuak izan daitezke horiek ere.

Aipatzen ari garen bi ibilbide-multzoetako azterketari jarraiki, ondorengo grafikoan eta taulan bi multzo horietako datu orokorretako azken bost urteko epean izandako bilakaerak alderatuko ditugu, berezitasunak zenbaterainoko garrantzia izan dezaketen azaltzeko lagungarria izango delakoan.

6.2 Zonalde orokorren arabera emaitzen bilakaera

Ondorengo grafikoan eta taulan ikus daitezke zonalde bakoitzeko euskararen kaleko erabilerak azken bost urteetan izan duen bilakaeraren datuak.

13. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA, ZONALDEAREN ARABERA. GERNIKA-LUMO, 2011-2016 (EUSKARAZ,%)



	Guztira (%)	Lurgorri (%)	Erdigunea (%)	Errenteria/Lorategieta (%)
2011	48,9	57,3	47,2	37,4
2016	40,6	43,3	39,9	37,0


Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketak, 2011 eta 2016.

Bilakaera horretan, nabarmentzekoa da Lurgorri eta Erdiguneko ibilbideetan gertatutako erabileraren beherakada handia (14 puntukoa Lurgorri eta 8 puntukoa Erdigunean). Errenteria/Lorategietako ibilbidean ordea, bere horretan mantendu da euskararen kaleko erabilera. Beraz, aipagarria da, 2011n elkarrengandik desberdinak ziren zonaldeetako erabilerak (Lurgorri %57,3, Erdigunean %47,2, eta Errenteria/Lorategieta %37,4), berdintzeko joera dutela, lehenago nabarmenki euskararen erabilera altuagoa zuten bi ibilbideak gaztelaniaren erabilera antzekora hurbiltzen ari baitira, esan bezala. Akaso, bere balio sinbolikoarengatik, arreta berezia mereziko luke udalerriko erdigunean gertaturiko jaitsiera (%47,2tik %39,9ra)

6.3 Ikastetxeen zonaldeetako emaitzen bilakaera

2011n egindako *Hizkuntzen kaleko erabileraren neurketan* ere ikastetxeen inguruko datuak berariaz jaso ziren. Eta, beraz, bost urteko epean gertaturiko bilakaeraren berri emateko moduan gara.

14. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA, ZONALDEAREN ARABERA. GERNIKA-LUMO, 2011-2016 (EUSKARAZ,%)



	Guztira (%)	Allende ikastetxea (%)	Institutu ingurua (%)	Seber Altube ikastola (%)
2011	59,5	68,0	51,6	62,9
2016	61,8	69,0	42,5	74,2

Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketak, 2011 eta 2016.



Azken bost urteko epean, euskararen erabilerak nabarmentzekoa da Seber Altube Ikastola inguruan gertaturiko erabileraren igoera handia (11 puntuko igoera 2011ko %62,9tik %74,2ra). Allende ikastetxearen inguruan erabilera-datua bere horretan mantendu da epe berean, eta, aldiz, Institutu inguruan beherakada nabarmena gertatu da euskararen erabileran (9 puntukoa, 2011ko %51,6tik 2016ko %42,5era).


7. Hiztunen ezaugarrien araberako datuak

Hiztunen ezaugarrien araberako azterketa egiteko ere interesgarria da bereiztea datu orokorra eta bi ibilbide-multzoetan jasotako datuak.

7.1 Sexuaren araberako emaitzak

Ondorengo grafiko eta taulan ikus daitezke sexuaren araberako emaitzak, aipatutako ibilbide-multzoen arabera:

15. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. GERNIKA-LUMO, 2016 (%)



	Datu orokorrak		Erdiguneko 3 ibilbideak		Ikastetxe inguruko ibilbideak	
	Emak.	Giz.	Emak.	Giz.	Emak.	Giz.
Euskaraz	49,0	50,0	40,5	40,8	61,2	62,7
Gaztelaniaz	47,8	46,6	56,2	54,8	35,8	35,2
Beste hizkuntzetan	3,2	3,4	3,4	4,4	3,0	2,1
	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	3.124	2.367	1.843	1.368	1.281	999
	5.491		3.211		2.280	

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketak, 2016


Gizonezkoen eta emakumezkoen hizkuntza-portaeren artean alde handirik ez du erakutsi egindako neurketak, ibilbidez ibilbide hartuta. Euskararen erabilerari dagokionean, emakumezkoen (%49,5) eta gizonezkoen (%50) erabilera-maila berean daude, eta berdintasun hori

mantentzen da bi ibilbide-multzoetan (%40,5 eta %40,8 hurrenez hurren ibilbide orokorretan, eta %61,2 eta %62,7 ikastetxe inguruetan). Azken urteetako portaera orokorra Euskal Herrian emakumezkoen erabilera handiagoa izatearena bada ere, datu hauen argitan, Gernika-Lumon bi sexuen arteko hizkuntza-portaera parekoa dela esan dezakegu.

7.2 Sexuaren arabera erabileraren bilakaera

Sexuaren arabera kaleko euskararen erabileraren bilakaera aztertzeko, soilik herrigunea osatzen duten hiru ibilbideak hartuko dira kontuan, horiek izan baitira orain arte (aurreko neurraldietan) erreferentziazat hartu direnak. Beraz, ondoko koadro eta taulan ageri diren datuak, ibilbide horietan (udalerriko erreferentziazat hartu direnak) gertaturiko beherakada nabarmendu da.

16. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAREN KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. GERNIKA-LUMO, 2001-2016. (EUSKARAZ, %)



	2001	2006	2011	2016
Emakumezkoak	48,6	50,6	47,9	40,5
Gizonezkoak	49,4	53,0	50,3	40,8


Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketak, 2001, 2006, 2011 eta 2016.

Sexuaren arabera kaleko euskararen erabileraren 2001-2016ko datuak erakusten dute azken hamabost urteetan gizonezkoen euskararen erabilera-maila altuagoa izan dela. Aldakorra izan da sexuen arteko aldea, baina orokorrean diferentzia txikiak ikusi dira. Hala ere, nabarmentzekoa da, sexuaren arabera euskararen erabileran desberdintasun txikiena 2016ko neurketan jaso dela.

7.3 Adinaren arabera emaitzak

Adinaren arabera emaitzak ere, ibilbide multzoen arabera aztertuko dira ondorengo grafiko eta tauletako datuen arabera.

17. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA ADINAREN ARABERA. GERNIKA-LUMO, 2016 (%)



	Datu orokorrak				Erdiguneko 3 ibilbideak				Ikastetxe inguruko ibilbideak			
	Haur.	Gazt.	Held.	Adin.	Haur.	Gazt.	Held.	Adin.	Haur.	Gazt.	Held.	Adin.
Euskaraz	62,2	54,2	41,1	35,5	52,6	51,7	35,2	30,7	70,0	56,5	53,5	49,0
Gaztelaniaz	35,3	45,8	53,9	63,8	43,7	48,3	59,7	68,6	28,4	43,5	41,5	50,3
Beste hizkuntzetan	2,6	0,0	5,1	0,7	3,7	0,0	5,1	0,7	1,6	0,0	5,0	0,6
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	2.110	356	2.425	600	947	172	1.649	443	1.163	184	776	157
			Guzt.	(5.491)			Guzt.	(3.211)			Guzt.	(2.280)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016.

17. grafikoan eta taulan ikus daitekeenez, datu orokorren arabera haurren erabileraren batez bestekoa %62,2koa izan da, gazteen artekoa %54,2koa, helduen artekoa %41,1ekoa eta adinekoen artean %35,5ekoa; Euskal Herriko hainbat eta hainbat udalerritan oso ohikoa den hurrenkera, hain zuzen.


Nolanahi ere, oso kontuan hartzekoa da, datu horiek asko aldatzen direla ibilbideen arabera egindako banaketan. Alegia, haurren, helduen eta adinekoen kasuan ia hogeitako puntuko aldea behatu da ibilbide multzo batetik bestera (%52,6koa izan da ibilbide orokorretan, eta %70koa ikastetxe inguruetan haurren artean; %35,2 eta %53,5 helduen artean, eta %30,7 eta %49 adinekoen artean, hurrenez hurren). Beraz, esan daiteke, eskola inguruko eremu fisiko horrek eragin oso handia duela haurrengan, helduengan eta baita adinekoengan ere.

Gazteen artean, ordea, ez da horrela gertatu. Izan ere, ibilbide orokorreko datuaren (%51,7) eta ikastetxe inguruko datuaren (%56,5) artean bost puntuko aldea behatu baita, gainerako adin-taldeetan behatutako 20 puntu inguruko diferentziazio oso urrun. Esan daiteke, beraz, gazteen kasuan, haien euskararen erabilera ikastetxe inguruan eta ibilbide orokorretan oso antzekoa dela. Hala ere, kontuan izan behar da gazteen artean jaso dugula lagin txikiena, eta beraz datua ahul samarra izan daitekeela, alegia, joera baten aurrean gaudela gehiago esan daiteke datu sendo baten aurrean baino.

7.4 Adinaren araberako gaitasuna eta erabileraren arteko alderaketa

Aurreko datuak hobeto azaltzeko asmoarekin adin-tartearen araberako hizkuntza-gaitasunari erreparatzea interesgarria izan daiteke. Ondorengo taula eta grafikootan ikus daitekeenez, adinari erreparatuta, badaude aldeak herritarren hizkuntza-gaitasunean.

18. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA (2011) ETA EUSKARAREN ERABILERA (2016), ADINAREN ARABERA. GERNIKA-LUMO.



	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
Gaitasuna (2011)				
Euskaldunak	87,5	80,8	62,4	65,7
Ia euskaldunak	8,6	6,5	19,4	14,6
Erdaldunak	3,9	12,7	18,2	19,7
Datu orokorren arabera erabilera (2016)				
	62,1	54,2	41,1	35,5


Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011.

EUSTATen datuen arabera, Gernika-Lumon haurren eta gazteen artean hamarretik bederatzi eta zortzi dira euskaldunak (%87,5 eta %80,8 hurrenez hurren). Helduen eta adinekoen kasuan berriz, hamarretik sei eta zazpi artean (%62,4 eta %65,7). Beraz, kasu guztietan, aurreko grafikoan aurkezturiko datuekin alderatuz, gaitasuna eta erabileraren artean 20 eta 30 puntu inguruko tarte dagoela ikus daiteke: haurren artean 25 puntukoa, gazteen artean 26 puntukoa, helduen artean 21 puntukoa eta adinekoen artean 30 puntukoa. Ez da beraz, adin-tarte zehatz bati egotzi dakioken fenomeno; aldiz, aspaldiko garaietatik datorren joera dela esan daiteke.

7.5 Adinaren arabeko erabileraren bilakaera

Adinaren arabeko euskararen erabileraren bilakaera 2001eko 2016koa aztertzeko, erdiguneko 3 ibilbideetako datuak hartuko ditugu soilik. Ondoren 2011tik 2016 bitarteko bilakaera ibilbide-multzoen arabera aztertzeko moduan izango gara.

19. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA, ADINAREN ARABERA. ERDIGUNeko 3 IBILBIDEAK. GERNIKA-LUMO, 2001-2016 (EUSKARAZ, %)



Erdiguneko 3 ibilbideak					
	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak	GUZTIAK
2001	66,5	45,1	45,5	52,6	52,6
2006	71,3	52,0	40,2	44	52,0
2011	68,1	51,0	41,0	33,3	49,0
2016	52,6	51,7	35,2	30,7	40,6


Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketak, 2001, 2006, 2011 eta 2016.



Hamabost urteko epealdiari (2001-2016) erreparatzen badiogu. Ikus daiteke haurren, helduen eta adinekoen euskararen erabileraren bilakaerek, joera beherakor (ia) konstantea dutela. Haurren kasuan hamalau puntuko jaitiera, helduen artean 10 puntukoa eta adinekoen artean 18 puntukoa. Gazteen taldeari dagokionez, aldiz, lehen bost urteko 8 puntuko igoeraren ondoren, 2006 eta 2016 bitarteko epean erabilera %51-52an egonkor mantendu dela esan daiteke.

Adinaren araberako bilakaera aztertzeko ordea, interesgarria da begiratzea ibilbide-multzoen araberako azken 5 urteko datuak (20. Grafikoa eta taula.).

20. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA, ADINAREN ARABERA. IBILBIDE-MULTZOEN ARABERA. GERNIKA-LUMO, 2011-2016 (EUSKARAZ, %)



	Datu orokorrak (%)		Erdiguneko 3 ibilbideak (%)		Eskola inguruak (%)	
	2011	2016	2011	2016	2011	2016
Haurrak	69,1	62,2	68,1	52,6	71,2	70,0
Gazteak	54,8	54,2	51,0	51,7	59,8	56,5
Helduak	43,3	41,1	41,0	35,2	50,8	53,5
Adinekoak	36,1	35,5	33,3	30,7	46,1	49,0

Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketak, 2011 eta 2016.



2011ko neurketatik 2016korako epealdian, bereziki nabarmentzen da alde batetik gazteen erabilera ez dela apenas aldatu: erabilera orokorra %54,8koa zen 2011n eta %54,2koa 2016an. Halere, ez da baztertzekoa ikastetxe inguruetakoa ibilbidean izandako hiru puntuko jaitsiera (%59,8tik %56,5era).

Beste motatako bilakaera ikusi da haurren artean. Izan ere, nabarmentzeko jaitsiera gertatu da: datu orokorrean %69,1etik %62,2ra. Datu hori hurbilagotik begiratzuz gero, garbi azaltzen da jaitsiera hori erdiguneko 3 ibilbideetan gertatu dela (%68,1etik %52,6ra), eskola inguruetan ez baita jaitsierik somatu. Beraz, kontuan hartzeko datua izango da hori.


Helduen eta adinekoen artean nabaritu den datu orokorraren jaitsiera estatistikoki oso txikia dela esan daiteke: helduen artean bi puntukoa (%43,3tik %41,1era) eta adinekoen artean puntu bakarrekoa (%36,1etik %35,5era). Nolanahi ere, nabarmendu egin behar da erdiguneko 3 ibilbideetan jaitsiera hori kontuan hartzekoa dela (6 eta 7 puntukoak, hurrenez hurren), nahiz eta eskola inguruan erabilerak gora egin duen (3 puntu adin-talde bietan).

8. Euskararen erabilera eta haurren presentzia

8.1 Haurren presentziaren arabera euskararen erabilera

Nola aldatzen da hizkuntzen erabilera solas-taldea era batekoa edo bestekoa izan? Zehazki, haurrak eta nagusiak (gazte, heldu zein adineko) elkarrekin nahasian aritu edo ez, horrek ba al du eraginik hizkuntza baten edo bestearen aldeko hautuan?

21. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAREN KALE-ERABILERA, SOLAS-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. GERNIKA-LUMO, 2016 (EUSKARAZ, %)



	Haurren artean	Nagusien artean	Haurrak eta nagusiak nahasian
Datu orokorrak	56,5	32,2	63,5
Erdiguneko 3 ibilbideak	41,4	28,0	56,8
Ikastetxe ingurukoak	66,7	42,4	71,4
Oinarria (behatutako solaskideak)	1.011	2.242	2.238

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016

Kasu honetan ere, datuak ibilbide-multzo desberdinen arabera eskainiko ditugu. Datuak ikuspegi horretatik aztertuta ikus daiteke joera nagusia zein den: hizkuntza-portaerak aldatu egiten dira solas-taldearen osakeraren arabera. Zehazki, haurrak bakarrik (nagusirik gabe) daudenean,



euskararen erabilera beti da handiagoa nagusiak eurak bakarrik daudenean baino. Haurren artean %56,5ekoa da (datu orokorra) euskararen erabilera. Baina datu hori asko aldatzen da erdiguneko 3 ibilbideetan izan (%41,4) edo ikastetxe inguruetan izan (%66,7).


Nagusiak, eurak bakarrik daudenean nabarmenki gutxiago hitz egiten dute euskaraz: %32,2 da euren euskararen erabilera haurrik ez badago inguruan. Baina erabilera hori aldatzen da ibilbide-multzoen arabera. Ibilbide orokorretan %28koa den bitartean, ikastetxe inguruetakoko nagusien euskararen erabilera nabarmen handiagoa da (24 puntuko aldea %28tik %42,4ra).

Haurrak eta nagusiak elkarrekin daudenean ere datuak aldatzen dira ibilbide-multzoen arabera. Datu orokorra %63,5ekoa da, baina erdiguneko 3 ibilbideetan %56,8koa den bezala, ikastetxe inguruetan %71,4koa da erabilera hori.

Laburbilduz, beraz, esan daiteke, haurrak eurak bakarrik daudenean nabarmen gehiago hitz egiten dutela euskaraz nagusiak baino, eta erabilera hori hazi egiten dela haur eta nagusien arteko taldeetan. Nagusiengan hazkuntza hori are eta nabarmenagoa da, talde horietako erabilera eta eurak bakarrik daudenean gertatzen denaren arteko tartea 30 puntu ingurukoa baita. Azkenik, aipatu behar da, kasu guztietan eskola inguruan egoteak nabarmenki igotzen duela euskararen erabilera, bai hurrengan, nagusiengan eta baita haur eta nagusiez osatutako taldeetan.

Ikus dezagun ordea haur eta nagusien arteko elkarrizketetan zer gertatzen den, ea batzuen eta besteen artean hizkuntza-portaeretan alderik dagoen. Hau da, talde horietan berdin jokatzten dute haurrek eta helduek hitz egiten dutenean? Ondorengo grafiko eta taulatan ikus daitekeenez, alde nabarmena dago batzuen eta besteen arteko hizkuntza-jokabideetan.

22. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAREN KALE-ERABILERA, SOLAS-TALDEAREN OSAERAREN ETA HIZKETAN ARI DENAREN ARABERA. GERNIKA-LUMO, 2016 (EUSKARAZ, %)



	Haurren artean	Nagusien artean	Haurrak eta nagusiak nahasian	Nagusia hitz egiten	Haurra hitz egiten
Datu orokorrak	56,5	32,2	63,5	48,6	72,0
Erdiguneko 3 ibilbideak	41,4	28,0	56,8	43,4	67,4
Ikastetxe ingurukoak	66,7	42,4	71,4	58,3	76,3

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016

Esan bezala, haurrak eta nagusiak elkarrekin osatutako taldeetan daudenean nabarmenki gehiago entzuten da euskaraz hitz egiten haurrez edo nagusiez osatutako taldeetan baino.

Talde horietan ordea, haurrek gehiago erabiltzen dute euskara nagusiak baino. Haurra hizketan ari denean %72tan euskaraz ari den bitartean (ikastetxe inguruan %76,3tan eta ibilbide nagusietan %67,4tan), nagusia hitz egiten ari denean %48,6koa da euskararen erabilera (%43,4koa ibilbide nagusian eta %58,3 ikastetxe inguruetako ibilbideetan).

Beraz, batzuen eta besteen erabileran nabarmentzeko alde handia dagoela esan daiteke (20 eta 25 puntuko tartea bata eta besteen artean.)



9. Datu nagusien irakurketa (laburpena)

Atal honetan, Gernika-Lumoko 2016ko hizkuntzen kale-erabileraren neurketan jasotako **emaitza nagusiak** laburbilduko ditugu.

- Kalean entzundako **hamar elkarrizketetatik bost** euskaraz izan dira (49,4), gaztelaniaz %47,3 eta beste hizkuntzetan %3,3.
- **2001-2016 epealdian**, datu orokorrak kontuan hartuz, **6 puntuko jaitsiera** izan du: **3 puntukoa azken bost urtean** (2011-2016)
- Erdiguneko 3 ibilbideetako datua kontuan hartuz, jaitsiera handiagoa izan da: 12 puntukoa 2001-2016 epealdian eta 8 puntukoa 2011-2016 bitartean.
- Zonaldekako azterketari dagokionez, eskola inguruko ibilbideetan nabarmen gehiago erabiltzen da euskara: **erdiguneko 3 ibilbideetan %40,6koa, ikastetxe inguruetan %61,8**. Erdiguneko 3 ibilbideetan: Lurgorri (%57,3), Erdigunean (43,2), Errenteria/Lorategieta (%37,4). Ikastetxe inguruetan: Seber Altuben (%74,2), Allende ikastetxea(%42,5), Insitutu ingurua (%42,5).
- **Haurrak eta gazteak dira euskara gehien** erabiltzen dutenak, %62,2 eta %54,2, hurrenez hurren. Euskara gutxiago erabiltzen dute helduek (%41,1) eta adinekoek (%35,5).
- **Alde oso esanguratsuak daude erdiguneko 3 ibilbideetako eta ikastetxe inguruetako** datuen artean: adinaren arabera erabileran haurren helduen eta adinekoen datuak nabarmenki altuagoak dira eskola inguruko ibilbideetan erdiguneko 3 ibilbideetan baino. Gazteen kasuan, ordea, euskararen erabilera antzekoa da erdigunean zein eskola inguruetan (institutu inguruan).
- **Haurrak bakarrik** (nagusirik gabe) daudenean %56,5ekoa da euskarazko erabilera. Nagusiek euren artean (haurrik gabe) ari direnean %32,2koa da erabilera, eta hurrek eta helduek osatutako taldeetan %63,5ekoa. Kasu honetan ere nabarmentzeko aldeak daude ibilbide-multzoen arabera.
- **Haurrez eta nagusiez** osatutako taldeetan, **haurra** hitz egiten ari bada erabilera altuagoa da (%72), nagusia hitz egiten ari denean baino (%48,6).

Andoain, 2017ko ekaina.